



## 93 biga buru atera dituzte enkantera aurtengoan

**TOLOSA** ▶ Ferialekuan egin zuten atzo; 1.000 eta 2.000 euroko irteera prezioak izan zituzten

**ARRAZAK** ▶ Piriniar, limusin, blonda eta frisiarrak izan ziren erosgai; 22 baserritarrek hartu zuten parte ▶ 4



Baserritarren topaleku bilakatu zen atzo Ferialekua; bosgarren edizioan «saio lasaiak» izan ziren. N. GARZIA

### IBARRA ▶

#### Bihar hasiko da Aste Misiolaria parrokian

Ibarratik Misio Taldeak antolatutako aste osoan zehar ▶ 6

### IRURA ▶



N. GARZIA

#### 120 zuhaitz landatu dituzte ikasleek

Ibaigain zeharbidean aritu ziren lanean Zuhaitz Egunean ▶ 4

### LEITZA ▶

#### «Arrakastatsua» izan da III. Wu Shu-Kung Fu Txapelketa

Euskal Herrikoan aritu ziren kirolariak Leitzako kiroldegian ▶ 5

### IBARRA ▶

#### Alurr dantza taldea Irlandara, «euskal kultura barreiatuz»

Hilaren 15etik 20ra Cork-eko San Patrizio egunean hartuko du parte ▶ 5

### ALEGIA ▶

#### Korrikaren aldeko bertso bazkaria

Arzallus eta Egaña aritu ziren atzo ▶ 5

UZTURRETIK ▶ ANDU MARTINEZ DE RITUERTO

## Egungo gazteak



A skotan entzun ohi ditut egungo gazte eta umeen gaineko iritzi ez-  
kor xamarak: lotsagabeak direla, errespeturik ez dutela, esfortzua zer den ez dakitela... Mota honetako loreak entzuten ditudanean, iritzimalea mutazio genetikoren bati egozten dizkiolako sentsazioa daukat gainera, auskalo zerk sortutakoa; Txernobilgo laino erradioaktiboak akaso.

Gizakion heziketa oso gai konplexua da. Jaiotzen garenetik, eta askoren

aburuz amaren sabelean gaudenetik ere, gure inguruan ematen diren gertaerak eragina izango dute gure nortasunean, gure izaeran, gure heziketan eta horietako asko oharkabeen pasatzen dira gehienontzat. Ume batek (eta heldu batek baita ere) errazago ikasiko du ikusten duena esaten zaiona baino. Gazteek, umeek eredu egokiak, erreferenteak behar dituzte.

Kontua horixe da, orain dela urte batzuk, oinarritzko heziketa osatzeko garaian, erreferente gutxiago, ia etengabe presenteak (ama gehienetan hor zegoen) eta batuagoak zeuden; herri-  
tar gehienak ere ume eta gazteen heziketa prozesuan bete-betan parte hartzen zuten. Gaur egun berriz, heziketa

erreferenteak askotan desagertu egin dira eta estimuloen iturriak ia mugagabeak izan daitezke (telebistako nahi adina kanal, internet, txatak eta korreo elektronikoa...) eta kontrolatu ezean eragin oso kaltegarria izan dezakete ume eta gazteen heziketan.

Seme-alaba kontrolaezinak, berekoiak, frustrazioa jasateko gai ez direnak izan nahi dituzten gurasoentzako gomendio hauek irakurri nituen behin; betez gero ez duzue kalerik egingo: eskatzen duten guztia eman iezaezue; egiten dituzten txorakeri eta bihurrikari guztiak txalotu iezazkiezue; ezta okurritu ere heziketa moral eta zibikoa ematea; ez behin ere errietarik egin frustatuko zaizkizue eta

agian; botata eta jaso gabe uzten duten guztia jaso eta txukundu ezazue; nahi duten guztia ikusi (tv, internet...) eta nahi dituzten jokuak erabili ditzatela ordenagailuan eta play-stationean, ez denbora mugarik jarri, noski; ez esfortzurik eginarazi, ez dezatela jakin bizitza honetan lana egin behar dela bizirauteko; eztabaida sutsuak izan beraien aurrean; eskatzen duten diru guztia emaezue; dituzten kapritxo guztiak bete eta inoiz ez kontrarik egin.

Ume eta gazteei mugak ezartzea, eman behar direnean ezezkoak ematea eta betebeharrak betearaztea; laztanak, musuak eta besarkaden bezalibeste maitasunaren adierazleak dira eta beraien garapen orekaturako ezinbestekoak dira.

Lasai egon beraz, gure ume eta gazteak ez dira inongo mutazio genetikorik jasaten ari.

## ASTEKO IRUDIA ▶



## Emakumearen Nazioarteko Egunean, aldarriak bi eskualdeetan

**Erredakzioa** ▶ Martxoaren 8aren harira bi eskualdeetan emakumeek hainbat ekitaldi egin zituzten, Emakumearen Nazioarteko Egunarekin loturikoak denak: elkarretaratzak, hitzaldiak... Helduentzat bai eta gazteentzat zuzenduriko jardunaldiak izan ziren, guztiak ere berdintasuna aldarri. «Emakume langileok subjektuak gara gure herriaren bilakaeran eta subjektuak izan nahi dugu, eskubide eta aukera berdintasunean, gatazka politikoaren gaindipena ekarriko duen prozesuan: aktiboki parte

hartuz eta erabakiz». Honen aurrean, «instituzioei puntu ezberdinetan aldarrikapenak exijitu» zuten, esaterako, LAB sindikatukoek euren agerraldian. Tolosaldeko Bilgune Feministak ere batzarra egin zuen eta bertan, «Euskal Herriko emakumeon eskubide gutuna aurkeztu» zuten. Ondoren, eztabaidan sartu ziren, euren inguruan somatzen dituzten eskubide uraketak zerrendatu eta horiei aurre egiteko dagozkien eskubideak zein izango liratekeen azalduz. HITZA

ESANA ▶



**NEREA ALIAS**  
TELEBISTA AURKEZLEA

«Haurrekin lanean jarraitzen dut baina kalean aritzeak ez du zerikusirik plato lanarekin»

«Leku guztietara berandu heltzen den horietakoa naiz, baina eskuabala ere banaiz»

«Hamaika gauzari diot alergia: plenari, katuei, akaroei, tomateei, fruitu lehorrei...»

«Erasokorra den eta indarkeria erabiltzen duen jendea ez dut parean ikusi nahi»

Gaztetxulo (2007/03/01)

GUTUN@K ▶

18/98

Honako agiri hau sinatzen dugunok, Ezker batua Berdeak taldeko Batzen korrontearen kideak gara eta Audientzia Nazionala burutzen ari den 18/98 + sumarioaren epaiketa politikoa salatzen dutenekin bat egitera gatoz.

Epaiketa politikotzat jotzea ez da arinkeria bat. Adierazpen, biltze edo eta elkarte funtsezko eskubideen urraketarri du oinarri. Gertatutako erasoaldien artean honakoak antzeman ditzakegu: prozesaturiko pertsonen berma juridikoen gabezia; neurrigabeko fidantza ekonomikoak; aurrez aurretiko kartzel zigorraren abusua; tortura eta tratatuaren salaketak; legediaren instrumentalizazio politikoa;

zehatz gabeko tipo deliktiboen aplikazio zabala; edo probaezinak diren txosten literario-polizialean oinarritutako prozedura ideologizatuak.

Aurrean dugun «Zuzenbidezko Estatuaren» kritika areagotzen du honek geurean. Ez gaitu konbenzitzen. Ez interes politikoei erantzuten dion potere judicialaren uesteko independentziarik; ez garai bateko tribunal apartekoak bezala funtzionatzuten duen Audientzia Nazionalik; ez nazio aniztasuna ukatzen duen Estatu eredu monarkikorik; ez beste hainbat arrazoiengatik ere -hau bezalako mila bat agiri egin beharko genituzke, ez gaitu inolaz ere konbenzitzen. Oraingoan, kritika politikoa honi badugu honako sarraskeria judiriko-politiko hau

gehitzerik ere. Kriminalizazio saiakera argia deritzogu hau guztiari, delituen izaera norbanakoa eta probatorioa gogoz ahazten duen saiakera kolektibizatzailea, alegia. Non ote da errugabetasun presuntzioa?

Aipatutako eskubide eta askatasun horiek geureak bailitza bezala sentitzen ditugu, orain ez gutxi borrokatutakoak eta sufrimendu itzelak pairatuz irabaziak izan direla sentitzen dugun, izan ere. Hori dela eta, kasu honetako urraketa sistematiko hau guztioi dagokigula uste dugu, EBB taldeko parte garen heinean, eta beraz, euskal gizartearen parte garen heinean ere.

Arazoi hauek direla medio, hurrengo larunbatean Bilbon deituta den manifestazioarekin bat egin nahi dugu. Ez ga-

toz bat akusatuen planteamendu politiko guztiekin, baina horien eskubideak defendatzeko beharrean aurkitzen gara, gu guztien eskubide eta askatasunak direlako, hain zuzen ere.

Honen bestez, azkenik, elkarriketaren, biolentzia ezaren eta pertsona guztien eskubide guztiekiko errespetua aintzat izan nahi dugu. Euskal Herri askeago eta demokratikoago baterantz eramango gaituztelakoan, non herritarren sorterrria baino, berauen eskubide nahiz betebeharren praktikak eraginkorra nagusituko den.

JESÚS UZKUDUN, RICARDO ORTEGA,  
JOSEAN CUESTA, JOSEBA UGALDE,  
CARMEN GARCÍA, PABLO ARETXABALA,  
ROBERTO DE GARCIA, JOSEMI GARAIKOETXEA (...) ▶ TOLOSA  
(EZKER BATUA-BERDEAK)

‘IRAKURLEEN TXOKOA’ ▶

Desfasearen kultura

Idatzi hau egiteko beharra, joan den asteburuan Tolosako Udalak larunbat gauean Tolosa eta inguruko herrietako gazteriari zuzenduta antolatzen zuen desfase festan bizi eta ikusi nuenaren ondorio da. Udalak DJ bat ekarri zuen Beotibar frontoira. Sarrera doakoa jarri eta edari alkohol-dunak adinez nagusi ez zirenei debekatu zizkien. Ez zen lehenengo aldia jai hau antolatzen zuena eta gazteen artean zuen arrakastak erakarritak, gauerdiko aldera bertara hurbildu nintzen giroa ikustera. Ni joaterako jende multzo handia zen bertan eta festarako giro bikaina sumatzen nuen, eguraldia lagun. Baina ara non nere ezustea frontoira

sartu eta berehala. 13-14 urte inguruko gazte batzuk mozkor-mozkor eginda ikusi nituen. Burutik pasa zitzaizdan lehen gauza «botelloi» delakoa. Baina aurrera jarraitu eta barrara heldu nintzen. Barraren inguruan 13-14 urteko haurrak egarri, alkohol eske eta bertako zerbitzariak inolako eragozpenik gabe nahi adina alkohol emanez!! beraz ez zen botelloia, gazteak inolako arazorik gabe modu «zilegi» batean hari ziren kontsumitzen. Gazteria desfasetzen ari zen udalaren oniritziarekin! hau ikusita, atsekabeta, etxerako bidea hartu nuen. Bidean hobeto fijasatu, eta ume mozkorrak zirenla nagusi oharatu nintzen. Behin frontoitik ateratakoan nire tristura eta mina handiagotu zuen irudia; zutik mantendu ezinda,

eseri, eta horrela ere bere kasa mantentzen ez zen haur bat!! gauean ez nuen lo gehiegi egin, egia esateko!

Bertan ikusi nuen panorama ikusita, zera galdetzen diot nire buruari; nola da posible hainbat analisi, prebentzio kanpaina, profesionalen txosten...eta gure gazteria desfasea ohinarri duen kulturaren horrela txertatuta egotea? Nola da posible Tolosako alkate den Jokin Bildarratz jaunak hau dena onartu eta bultzatzea? Badakit dj-a ordaintzeko eta bestelako gastuei aurre egiteko dirua behar duela, baina zilegi al da horretarako gure gaztetiaren osasuna erabitzea?

Tolosako Udalak hainbatean bezala hiritarron postontzira iragarkiak, Udalaren proposamenak...emanez, idatzi batzuk eman izan ohi dizkigu

eta hauetako batean EAJko zinegotzi batek zera zioen: «Gurasoak lasaia egoteko eta beraien seme-alabak gauetan herrikan kanpora ez joan beharrik izateko Udalak alternatibak» emango zituela... Nik zera galdetzen dut; hau al da udalak gazteriari eskaintzen dion alternatiba? desfasea? gurasoak lasaia daude horrela?

Azkenik, galdera bat: Zer eskaini dio Jokin Bildarratzek Tolosako gazteriari azken lau urte hauetan? Inork interesik jartzen ez dion eta propaganda utsa den *Hi gazte* aldizkaria, grafiti aplikatikoak egiteko paretak, desfaserako guneak eta Gazte Topagunea. Hau al da Tolosako alkateak gazteei eskaintzen diena? Hitz merke asko bai hauteskunde garaian baina gero...

TOLOSAR BAT ▶

hitza

Harpidedunen txokoa

Egin zaitez harpidedun!

HITZAren HARPIDEDUN  
TXARTELAREKIN %5\*-eko  
BEHERAPENA izango duzu  
zure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beharpenei gehituko  
eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun ordaintzaileek bakarrik  
eskuratu dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

**honekin**  
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44  
Santa Mari plaza, 1 behea

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

**Avalon**  
osagaiak  
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 31 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**SHANTI KIROLAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegietako kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

## IRURA ▶ NATURA

120 zuhaitz landatu  
dituzte Zuhaitz Egunean

Herriko hainbat umek eta gurasok Ibaigain zeharbidea lizar eta zuhaixkez bete zuten



Irurako umeak zuhaitzak landatzen. N. GARZIA

N. GARZIA

Atzo, urtero bezala, Zuhaitz Eguna ospatu zuten Iruran. Hori dela eta, Irurako hainbat ume eta guraso 16:30ean Ibaigain inguruko zeharbidean lanean aritu ziren.

Gaur Irurako Ibaigain inguruan txango bat ematera joaten direnek ezberdintasun txiki bat nabarituko dute, izan ere, atzo arratsaldean, Zuhaitz Eguna zela eta, lizarrak eta zuhaixkak landatu zituzten, osotara, 35 lizar eta 85 zuhaixka.

Umeak eta gurasoak bertaratu zirenerako, udal langileek zuloak eginak zituzten, zuhaitzak non landatu jakiteko. Marimi Ugaldet, Irurako alkateak, azaldu duen bezala, «orain izaten da landatzeko garaia,

eta horrexegatik aukeratu dugu gaurko eguna. Umeek zuhaitzekin kontu gehiago izaten ikastea da helburua».

Aitzurra lehenengo aldiz hartu zuten askok atzo, eta denen artean ongi moldatu ziren. Eguraldiak ere lagundu egin zuen, azkeneko egunetako euriteak atzean gelditu baitira. «Eguraldi onarekin egiten saiatzen gara. Gaur aurreko egunetan adina euri egin izan balu, bertan behera utziko genuke».

Iruran, beste hainbat lekutan bezala, urteak daramatzate Zuhaitz Eguna ospatzen. «Ibaigainean egiten dugun bigarren aldia da. Lehenago parkean ere egin izan dugu».

Lizarrak eta zuhaixkak landatu eta gero, Zuhaitz Eguna amaitzeko arratsaldekoa egin zuten herriko plazan. «Zuhaitzak landatzen aritu eta gero, arratsaldekoa egingo dugu». Orain, asteak igarotzen diren heinean egingako lanak bere fruituak emango ditu, pixkanaka zuhaitz hauek hazten direnean.

## TOLOSA ▶ EKONOMIA

93 biga buru atera  
dituzte enkantera  
bosgarren edizioan

1.000 eta 2.000 eurotako irteera prezioak izan zituzten eta erostun guztiek diru laguntzak jasoko dituzte



Baserritarren topaleku bihurtu zen atzo Ferialekua. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Nikita, Nikolasa, Olorosa, Muñeca, Jalarraitz, Iris eta Nagitza ez dira Hego-Ameriketako telesail famatu horien protagonistak, atzo Tolosako Ferialekuan saldu zituzten zenbait bigantzen amak, baizik. Paco, Oso, Otoño, Uritz eta horrelakak, berriz, aitaren izenak dira. Izan ere, atzo Ferialekuan enkantera atera zituzten 93 bigantxa guztiak saltzeko beharrezkoak zuten datuak zabaldu zituzten, hau da, jaiotze data, aitaren izena, amarena, arraza, eta horrelakak.

Goizean goiz bigantxak bertara eraman zituzten arren, sal-

menta saioa ez zen 12:00ak arte hasi. Bigantxak Euskal Herriko hainbat baserritatik eraman zituzten: Elorrio, Aia, Aretxabaleta, Getaria, Azpeitia, Ataun, Antzuola, Bergara... Jende aldetik, bertara hurbildu ziren gehienak euskaldunak izan arren, kanpotik etorri zenik ere izan zen.

Piriniarrak, limusinak, blondak eta frisiarrak izan ziren Ferialekuan salgai jarri zituzten arrazak eta irteera prezioak 1.000-2.000 euro bitartekoak izan ziren. Erosleak animatzeko diru laguntzak eman zituzten, bigantxaren adinaren arabera.

Enkantean parte hartzeko

txartelak hartu zituztenak 22 baserritar izan ziren, eta horietatik bakarra ere ez zen animatu irteera prezio garestiena zuen bigantxaren alde egitea. Getariako Alikante baserriko blonda arrazakoa izan zen irteera preziorik garestiena izan zuena: 2.000 euro. Baina Universal eta Igitanaren umeak ez zuten arrakastarik izan.

## Saio lasaiak

Orokorrean saioak lasai xamarak izan ziren. Bertara hurbildu zirenetatik baserritar batzuk bakarrik parte hartu zuten, hauek aurrealdera hurbildu ziren, bakoitzak txartelean zeraman zenbakia ongi ikus zedin. Gauzak horrela, saioa nahiko lasaia izan zen, nahiz eta hainbat kasutan bi erostun lehian aritu ziren. Honelako kasuetan 10 euroka igo zuten prezioa. Bigantxa zuzenean irteerako prezioan eraman zuen ere izan zen.

Euskal Herriko beste zenbait lekutan ere enkanteak egiten dituzte. Ordiziako Euskal Festan adibidez, piriniar arrazakoa saltzen dituzte, Elgoibarko San Bartolomeetan, limusinar arrazakoa eta Azpeitiako Santiago Egunean, blondak.



**VILLABONA:** 2 logela. Erdi eraberritua. Interesgarria.

**VILLABONA:** 2 logela. Eraberritua. Igogailua. Prezio ezberdinak.

**VILLABONA:** Eraikuntza berriko hainbat apartamentu. Erdigunean kokatuak. Bereziak.

**VILLABONA:** Larrea. 3 logela. Oso interesgarria.

**VILLABONA:** 3 logela. Eraberritua. Balkoi ederra. Ganbara.

**VILLABONA:** Errota. 3 logela, ganbara eta garajea.

**Errota 3 - Villabona**

**Olatzinmo@euskalnet.net**

**943 243 118 - 635 706 728**

**HITZA jaso eta abantaila guztiez gozatu nahi baduzu...**

**Egin zaitez harpidedun!**

**egunkaria + beherapenak + zozketak...**

Egunkaria buzoian jasotzeko utzi atariko giltza ondorengo puntuetan:

**TOLOSA**  
HITZAren egoitza  
Araba etorb. 5 behea

**LEITZA**  
HITZAren egoitza  
Herriko plaza, 1

**1.- BETE ETA ERAMAN / BIDALI BEHEKO HELBIDEETAKO BATERA:**  
TOLOSALDEKO ETA LEIZALDEKO HITZA, Araba etorbidea, 5 behea - 20400 TOLOSA edo Herriko plaza 1 - 37880 LEITZA. **Nahitaezkoa da datu guztiak betetzea**

► Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ ► NA: \_\_\_\_\_

► Lanbidea: \_\_\_\_\_ ► Jaiotzeguna: \_\_\_\_\_

► Helbidea: \_\_\_\_\_ ► Herria: \_\_\_\_\_

► P.K.: \_\_\_\_\_ ► Tel.: \_\_\_\_\_ ► mugikorra: \_\_\_\_\_

► Peletronikoa: \_\_\_\_\_

► Kontu zenbakia: \_\_\_\_\_

**2.- TELEFONO BIDEZ ere eman ditzakezu zure datuak:**  
Bezero arreta zenbakia: **902 82 02 01** (Asteunetan 08:30-20:30 Larunbatetan: 09:00-13:00)

## LEITZA ▶ KIROLA

## ASIER IMAZ

Leitzako kiroldegian Wu Shu-Kung Fu arloan, Euskal Herriko Txapelketa jokatu zuten atzokoan. Hirugarren urtea da txapelketa antolatzen hasi zirela eta aurtengoan Leitzan ospatu dute. Partaide ugari izateaz gain, ikusleak ere gerturatu ziren harmailetara. Kirol ezezaguna den arren gehienentzat, txaloak eta oihuak ere entzun ziren lehiakideak berotzeko asmoz.

Goizez Kornieta mendira joan ziren argazki saio bat egitera. Arratsaldeaz berriz, txapelketa hasi zen. Lehenik dragoi txinatar bat dantzan jarri zuten; «herria babesteko» egiten omen da dantza hori jatorrizko lekuan. Ondoren Formen kategoriarik ekin zioten. Hemen lehiakideak bakarka ibiltzen dira, «formak egiten» euren gorputzarekin. Armaz edo arma gabe, kolpe edo zeinuak egin behar dituzte epaimahaia- ren aurrean.

Azkenik elkarren arteko Wu Shu - Kung Fu borrokekin hasi ziren. Kolpeetatik ongi irteteko, burua, sabela, eskuak eta hankak babesturik ibili ziren.

# III. Euskal Herriko Wu Shu - Kung Fu Txapelketa jendetsua

Kiroldegian jokatu zuten arte martzial lehiaketa, bertara gerturatu zirenen harridura eta gozamenerako



Jende ugari bildu zen Leitzako kiroldegian Wu Shu-Kung Fu Euskal Herriko Txapelketan. A. IMAZ

## EMAITZAK ▶

## CHANG CHUAN ELITE

1. Aritz Aresti (Araba)
2. Jon Lazo (Araba)
3. Aritz Saratzaga (Bizkaia)

## ARMA LUZEKIN

1. Jon Lazo (Araba)
2. David Bustamante (Bizkaia)

## TALDEKA

1. Plentzia1 (Bizkaia)
2. Plentzia2 (Bizkaia)
3. You Ching (Araba)

## HEGOALDEKO BOXEOA

1. Amaia Calvo (Araba)
2. Mikel Henda (Araba)
3. Andres Leonard (Araba)

## NAN QUAN ELITEA

1. David Rodriguez (Araba)
2. Jon Lazo (Araba)
3. Jose A. Viña (Bizkaia)

## CHANG CHUAN GAZTEAK

1. Andres Leonard (Araba)
2. Jonatan Espinosa (Araba)
3. Jaime Aspiñon (Araba)

**Oharra:** Erredakzioa isteko orduan txapelketa amaitsu gabe zegoen, beraz emaitza guztiak ez daude.

## ALEGIA ▶ KORRIKA



## Korrikaren aldeko bertso bazkaria

**Erredakzioa ▶** Andoni Egaña eta Amets Arzallus bertsolariak izan ziren atzo Alegiko Txintxarri jatetxean 87 lagunen aurrean. Herriko bertso eskolaz antolatutako ekitaldian, gazteak ziren gehienak. Bertso «ederrak» entzuteko aukera izan zuten gerturatuak. Irabaziak berriz, Korrikarako izango direla jakinarazi dute. IBON AZPILUKETA

## ZIZURKIL ▶ AISIA



## XIV. Txapelaren eguna Zizurkil Goian

**A. Imaz ▶** Txapela buruan, egunean zehar hainbat ekitaldi antolatu zituzten Zizurkil Goian. Emakume eta gizonezko, arratsaldean Mus Txapelketan ibili ziren; 12 bikotek eman zuten izena. Iluntzean berriz, Txapeldun afaria izan zen. Ondoren poteoan tabernaz taberna eta bertsotan ibili ziren bertara gerturatu zirenak. A. IMAZ



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



## AZOKA ▶

Atzoko azoka  
eguna oso  
eguzkitsua eta  
alaia izan zen

PABLO ALBERDI

Giro beroak eguerdirako erosleak hurbildu zituen. Porruak, azenarioek, edo aza zein azaloreek oso itxura ona zuten eta asko hobetu ziren azken astetik. Eguraldiak ere zizak ekarri zituen azokara; atzo 150 eurotan salduak eta hemendik aurrera mahaie-tan mantendu egingo direla dirudi.

Apaingarrietarako landa-reen postuetan berriz, datozen asteetarako geranioak eta udaberriko loreak ekar-tzea espero dute.

## ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Azalea	5,00	8,00
San Juan lorea	1,50	-
Ziklamena	5,50	-
Erromero	4,00	6,00
Salbia	1,00	1,20

## Bertako produktuak

Ziza	150	-
Errezil sagarra	0,60	8,00
Kiwi	3,00	-
Babarruna	8,00	12,00
Lekak	2,50	3,50
Azalorea	1,00	-
Artisau ogia	2,80	3,70
Kalabaza	1,50	3,00
Inbaurra	2,50	4,00
Irisagar	3,00	6,00
Gazta berria	19,00	-
Ardigazta	14,00	18,00
Behigazta	7,00	7,50
Ardi - Behi gazta	11,00	-

## Beste gaia

Barakuria	1,60	6,00
Tipula	1,75	2,00
Azenarioa	2,00	2,50
Ahuntz gazta	3,00	-
Mermelada	3,00	3,60
Aza	2,50	3,00

## iragarki laburrak ▶

## LANA

**Gidariak.** Erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.

**Harreragileak.** Udaletxeetarako. Deitu: 943 44 48 66.

**Garbiketa.** Mantenua, gidariak, langileak, sukaldaritzako langileak... behar dira lanpostu finkoak betetzeko. 943 29 82 32.

**Suhiltzaileak.** Basozainak, Ertzaintza, udaltzainak. Erakunde publikoetarako hainbat deialdi. Telefonoa: 943 32 66 63.

**Hezkuntza.** Eusko Jaurilaritza.

## IBARRA ▶ ELKARTASUNA

Bihar hasiko da  
Aste Misiolaria  
parrokiko lokaletan

Ibarratik Misio Taldeak aste guztirako ekitaldi ugari antolatu ditu misio proiektu ezberdinak ezagutarazteko



Elkartasunezko Aerobic maratokia ere egingo dute aurren; argazkian, iazkoa. J. ASTIBIA

## ASIER IMAZ

Gobernuz kanpoko Ibarratik Misio Taldeak, bihurtik igandera Aste Misiolaria antolatu du. Hitzaldiak, afari solidarioa eta San Bartolome elizan, Euska-

risti Ospakizuna izango da, besteak beste, egun hauetarako egitarauan. Urtero bezala, Elkartasunezko Aerobic Maratokia ere egingo dute, baina aurtengoan Maiatzaren 5ean izan- go da. Atzerapen honen arra-

zoia, Gipuzkoako aerobik maratoi finalarekin bat egiteko asmoa da, izan ere, bost edo sei herrialdek antolatzen duten ekitaldi honen amaiera, aurren Ibarran egingo dute.

Biltzen den diru guztia be-

rriz, misio taldeak dituen proiektuen artean banatuko dela jakinarazi dute antolatzaileek. Proiektu hauek hainbat herrialde aurkitzen dira; Honduras, Teguzigalpa, India eta Eritrean adibidez. Ekuador barnean berriz, bi herrialdeekin dituzte loturak, Santa Rosa eta Babarekin, hain zuzen ere.

## BIHAR

**20:00.** Parrokiko lokaletan, German Altzueta misiolariak 30 urtetan Ekuador eta Ruan-dan bizitako esperientzia kontatuko du.

## MARTXOA 14, ASTEAZKENA

**20:00.** Donostiako Kalkuta Ondoan gobernu kanpoko erakundeak euren proiektuen berri emango du. Kalean biltzen dituzten jendearen inguruan lan egiten dute Kalkutan Ondo-anekoek. Indian bi puntutan dituzte proiektuak, Kalkutan kaleko gaixo terminala zuzendua eta hegoaldean, Keralan, kaleko haurrekin lan egiten dute.

## MARTXOAK 16, OSTIRALA

**20:30.** Afari Solidarioa parrokiako lokalean. Txartelak 10 eurotan egongo dira salgai.

## MARTXOAK 18, IGANDEA

**11:00.** Eukaristi Ospakizun berezia egingo dute Ibarrako San Bartolome parrokian egingo den mezan. Honekin emango diote amaiera, hain zuzen, Aste Misiolariari.

## LIZARTZA ▶ HEZKUNTZA

## Bihar hasiko den 18. Eskola Astea ekitaldiz gainezka aurkeztu dute eta herri guztiari zabaldua egongo da

## A. IMAZ

Astelehenetik ostiralera, 18. Eskolaren Astea ospatuko dute Lizartzan. «Herriko jendeak parte hartzea eta eskolako ate-

ak zabaltzea» izango dute helburu, herritarrek ere jaian parte har dezaten. Horretarako aste guztian egitarau zabala antolatu dute eta ekitaldietan ahalik eta jende gehienak par-

te hartzea nahi dute Lizartzako eskolako arduradunek. Besteak beste, bizikleta martxa, jaialdia eta afari merienda izango dira bertara gerturatzaren direnentsat.

## BIHAR

**Arratsaldean.** Eskulan tailerra egingo dute eskolako umeekin. **19:00.** Punttu Txapelketa ikas-

le eta heldu baten artean osatutako bikotez.

## ETZI

**Arratsaldean.** Bizikleta martxa irekia Nafarroako mugaraino. Txikienak herrian barrena ibiliko dira. Iluntzean berriz, afari merienda eta musika frontoian, guraso ume eta irakasleekin.

## MARTXOAK 14, ASTEAZKENA

**Iluntzean.** Eskolako jaialdia herri guztiari zabaldua.

## MARTXOAK 15, OSTEGUNA

**Egun osoan.** Aduna eta Zizurkil Goiko ikastetxeak gonbidatu dituzte herrira. Goizean jokuak eta arratsaldean jaialdia eskei-niko zaie beraiei.

## MARTXOAK 16, OSTIRALA

Egun guztirako irteera.

TOLOSALDEKO  
HITZA.INFO

**Zeuk idatzi.** Eskualdeko albisteak edo zuk zeuk nahi dituzun albisteak idazteko aukera ematen dizu webgunean aurkitzen den **Zeuk idatzi** atalak. Horretarako sartu goian azaltzen den helbidean.

## SALGAI

**Furgoneta.** Volkswagen Transporterra salgai. Kontakturako telefonoak: 943 65 57 00 eta 685 73 68 81.

**Zakurkumea.** Epagneul Breton zakurkumea salgai. Ehizean erakusten hasita. 689 89 24 34.

## BESTELAKOAK

**Desagertuta.** Cocker marroia desagertu da Belauntzan. Interesatuak deitu telefono honetara: 658 70 43 18.

Berehalako deialdia. 1.172 lanpostu gorputz-hezkuntza, haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, ingelesa, euskara, musika, ALE, PT eta aholkularitza. Informa zaitetz: 943 32 66 63.

## Sukaldaria eta zerbitzaria.

Asteburuetarako sukaldaria eta zerbitzaria behar dira. Deitu honako telefono zenbakira: 615 78 90 06.

## Tabernaria.

Neska euskalduna behar da tabernarako. Astelehenetik ostiralera, 15:30etik 22:30era, larunbat goizetan lana eta igandea jai. Deitu 650 48 79 34.

## IBARRA ▶ KULTURA

Alurr dantza tldeko dantzarietako batzuk *Obalao* lana interpretatzen izazko emanaldi batean. ELI GARMENDIA

## Itsasoz bestalde dantzan

Hilaren 15etik 20ra bitarte, Irlandako Cork herrian ospatuko den San Patrizio egunean parte hartuko du Alurr dantza taldeak

MADDI SOROA

Ozeano Atlantikoa igaroz Irlandako Cork hirira egingo du bidaia Alurr dantza taldeak. Irish Basque Committees Irlandako Euskal Herriarekiko elkartasuneko batzordeak martxoaren 17an ospatzen den San Patrizio eguneko ospakizunetan parte hartzea gonbidatu baitu taldea.

Alurrek, Corkeko batzordearen bidez jaso zuen martxoaren 15etik 20ra bitarte bertako ospakizunetan parte hartzeko gonbitea. Batzorde hori, irlandar musika eta dantza, bai Irlandan baita atzerrian ere bul-

tzatzen duen taldea da eta bera da San Patrizio egunean Corken burutuko diren ospakizunetan arduradun.

San Patrizio Irlandako nazio eguna da eta egun handia da mundu osoan dauden irlandarrentzat. Ehundaka eta milaka dira kalera ateratzen diren herriarrek, baita kanpotik etorritako turistak ere. Hori dela eta, aukera polita da Alurretzat horrelako ospakizun batean parte hartzea.

Guztira, 18 eta 27 urte bitarteko 26 dantzari abiatuko da Ibarratik. Hauekin batera, zazpi musikari izango dira, trikitilari, txistulari txalapartari edo

ta organo-jotzaileak, besteak beste.

Emanaldiei dagokionez, lau ikuskizun nagusi eskainiko ditu dantza taldeak, horietan bereziena San Patrizio eguneko izango delarik, gaueko emanaldia izango baita. Dantza tradizionalei dagokionez, orokorrean, Agurra, Plazara, Ezpata dantza edota Desafioa dantzatzuko dituzte. Bestalde, Lanz, Zazpi jauzi, Xapeloatz eta Zirkulo zirkulua izango dira Alurrekoek Irlandan dantzatzuko dituztenak.

Oholtza gaineko emanaldietaz gain, egunean zehar kalean burutuko diren kalejira eta

dantzaldietan parte hartuko dute Alurrekoek Irlandako dantzarekin batera.

### Cork, hiri bihurria

Cork herrialdea Irlandako Hego-Mendebaldean aurkitzen da eta Irlandako konderririk handiena da, baita arlo ezberdinetan, aldaerarik gehien dituen ere. Horregatik konderririk bihurria bezala ezagun da askorentzat. Bertako mugimendu kulturalaren isladak gisa, kulturaren hiriburu izendatu zuten 2005. urtean.

Beste herrialdeekin alderatuz, Dublinekin esaterako, oso

ezberdina da Cork, mendi, baso eta baserriz inguratua baitago eta naturarekin elkarbizitzan dago uneoro. Herrian bertan, esaterako, hiru laku daude. Upper, Muchcross eta Lough.

Cork herrialdea, izan duen historiagatik da ezaguna. Munduko bigarren portu naturalik handiena du eta industriari dagokionez, batez ere, XVIII. eta XIX. mendeetan zehar gurina, bakona, irina, artilea edota ongarria bezalako material eta jakien ekoizle nagusienetarikoa izan zen. Oraindik ere, jardueraren anitza du portuak eta Europako ate komertzialik handienetarikoa da.

Gaur egun, 300.000 biztanle-tik gora bizi da Corken eta mundu osoko hamaika herritarrek Cork herrialdea aukeratzeko ingelesa ikasteko.

### Maleta bete itxaropen

Alurreko dantzariak itxaropenez beteko dute maleta Irlandara joan aurreko egunetan. Eli Nosellasek azaldu duenez, «Irlanda beti izan da erakargarria hemengo jendearentzat, Euskal Herriarekin dituen antzekotasunengatik edo beste arrazoi batzurengatik». Hori dela eta «dantzariak gogoz eta ilusioz» daudela azaldu du Nosellasek.

Irlandarako bidaiaaren helburuen harira, zera adierazi du Eli Nosellasek, «beti esaten dugu Alurren helburua gure dantzak zabaltzea eta bide horretan ondo pasatzea del, hori lortu nahi dugu bai kanpoan baita etxean ere, gure arteko giro ona transmititzea, alegia».

Irlandako esperientziari begira, berri, «nik uste dut beste tokietako bizimoduak ezagutzeak, ireki egiten zaituela aldi berean hazi eta heziz» uste du Nosellasek, baita, «festa herrikoia bultzatzen ditugu eta hauetan parte hartzea gustatzen zaigu».

## San Patrizio, Irlandako patroia

San Patrizio, Glasgow eta Dunbritonen artean kokaturik dagoen Killatrick herrialdean jaio zen 387. urtean. Misiolari kristaua izan zen eta egun Irlandako patroia bezala ezagutzen da. Santa Brigida eta San Columbarekin batera, Britainako sermolarik erlikiosoa izan zen eta tradizioak diotenaren arabera, irlako erlijioaren sortzailetzat hartzen dute.

16 urte zituela pirata irlandarren eskutan erori zen eta esklabu bezala saldu izan zen. Ihes egiten saiatu zen hainbat aldiz eta azkenean Ita-

liara zihoan itsasontzi batean ihes egitea lortu zuen. 432. urtean gotzain izendatu zuten Irlandan eta harrezkero ebangelioa zabaltzeko eta kristau elkarrekin sortzen aritu zen.

Santu guztiek bezala mito eta tradizio asko daude San Patrizioren inguruan. Horieta-ko bat Irlandako suge hutziak desagertarazi zituela da, baita irlandar guztiei destilatzen irakatsi ziela ere. 461 eta 464 urteen arteko martxoaren 17an hil zela uste da. Horregatik haren aldeko eguna ospatzen da egun horretan.



San Patrizio. HITZA

Martxoaren 17a egun berezia izaten da irlandarrentzat bai Irlandan bertan bizi direnentzat, baita Irlandatik kanpo bizi direnentzat ere. Festa handia izaten da herrietan eta kolore berdea nagusitzen da infurgutietan. Kondairak dienez, San Patriziok Hirutasun Santua zer den azaldu behar izan zuen behin eta horretarako hirusta erabili zuen. Horra hor, kolore berdeek martxoaren 17an duen esanahia.

Kolore berdeaz gain, ordea, bada beste osagai nagusi bat egun handi honetan, zerbeza,

hain zuzen ere. Irlandesak kalera ateratzen dira egun hone-tan eta zerbeza edateko elkar-tzen dira lagun artean.

Irlandatik kanpo bizi den irlandar kopururik handiena Amerikako Estatu Batuetan aurkitzen da. 1900. urtean egini-ko errolda baten arabera ir-ladar familiako 40 milioi ameri-kartik gora dddago. XIX. mende erdialdera.

Bertakoak izan ala ez, martxoaren 17a kolore berdez eta zerbezaz inguratzen dira irlandarrak eta kaleak ere bizi handiko antzerki, musika edo dantzaz moztarotzen dira. Egun handia da, ezbaierik gabe, irlandarrentzat. ◀



Deustuko  
Unibertsitatea  
**Deusto**

Donostiako  
Campusa

# Deustuko Unibertsitatea Tolosan



## Etor zaitez gu ezagutzera

|ESTE-ESIDE. Titulazio Bikoitza:  
Enpresen Administrazioiko eta Zuzendaritzako Lizentziatura eta  
Kudeaketako Informatikako Ingeniaritza Teknikoa (6 urte)  
|ESTE. Enpresen Administrazioiko eta Zuzendaritzako Lizentziatura (5 urte)  
+ Espezialitateko Masterra  
|Giza Zientzietako Lizentziatura: Komunikazioa. HUCO (4 urte)  
|Giza Zientzietako Lizentziatura: Enpresa. HUEM (4 urte)  
|Turismoko Diplomatura (3 urte)  
|Gizarte Laneko Diplomatura (3 urte)

### Informazio saioa (Mesedez baieztatu)

**Eguna:** martxoak 14, asteazkena  
**Tokia:** Antonio M<sup>a</sup> Labaien Kultur Etxea  
Foruen Paza, 1  
Tolosa  
**Ordua:** 19etatik-20etara.

2007-2008 ikasturterako Sarrera  
Eskaearak aurkezteko epea zabalik

 943 326 308 - 943 326 600  
e-mail: [infoacad@ud-ss.deusto.es](mailto:infoacad@ud-ss.deusto.es)  
[www.infodonostia.deusto.es](http://www.infodonostia.deusto.es)